

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### AHOLKULARITZA JURIDIKOA

#### **269/20 prozedura laburtuan epea jartzea**

2019ko BPGari lotutako ehuneko 0,25eko soldata-igoera ordaintzeko eta 2020ko soldatak ordainsari guztien igoera —ehuneko 0,25 hori barne— oinarritzat hartuta berriro kalkulatzeko eskabidea ezetsi zitzaioneko Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariaren 2019ko abuztuaren 22ko ebazpenaren kontra ELA sindikatuak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsua —269/20 prozedura laburtua— izapidetzen ari delarik Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 3. Epaitegia, bederatzi eguneko epea jarri da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, bere interesetarako komenigarritzat jotzen badu bertara ager dadin, lege beraren 23. artikuluari jarraiki.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 30ean

*Legelari nagusia*  
**CRISTINA NÚÑEZ SASETA**